

URTEKO HOGEITA HAMARGARREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

(*Izrael bozkariotan itzultzen desterrutik*)

Jeremi profetaren liburutik 31, 7-9

- 7 **Hunela mintzo da Jauna:**
“ Egin oihu pozaren pozez Jakoberen herriagatik,
egin irrintzin herrien buru denagatik!
Egin oihu, gorets Jauna, erranez:
“ Salbatu du Jaunak bere herria, Izraelen hondarra!”
- 8 **Beha: iparraldetik erakarriko ditut,**
eta lurraren azken mugetarik bilduko.
Heien artean itsua eta maingua, haurduna eta haurra izan berria:
jendetza handia itzuliko da.
- 9 **Nigarretan joanak ziren, kontsolaturik ekarriko ditut;**
ur bizietarat eremanen ditut, behaztopatuko ez diren bidetik.
Aita bainaiz Izraelentzat, Efraim baitut premu.
Jaunak errana! ”

Profetaren solasak ez dira berak, herria bakean eta zorionean delarik edo malurrak jorik eta esperantza guziak galduak dagolarik. Jeremi mehatxuka ari da bere herritarreri bakean eta aiserian bizi direlarik. Bihotz berritzerat deitzen ditu Jainkoaren zigor bortitzak ez ditzan jo. Aldiz aferak gaizki doatzilarik profeta esperantza emaile nahi da agertu: Jainkoak ez du sekulan bere herria bere ber utziko hunen hutsak biziki handiak izanik ere.

Hemen kondatua zaukuna egoera etsigarri batean idatzia daitaie. Etsipenaren leize zolan delakotz Jeremi ausartzen da aldarrikatzerat : “*Egin oihu pozaren pozez Jakoberen herriagatik.*” Egoera hortan, profeta da lehenik ikusten duena gaua finitzerat doala eta egunsentia hurbil dela. Ez baita errex izanen sinestea profetak dioena, hunek bere solasak Jainkoarenak direla badio ere eta ez bereak : “ *Hunela mintzo da Jauna...Jaunak errana!*”

Zein zorigaitzen denboretan ote gira hemen ? Dudarik gabe Babiloniako erbesteratzearen urteetan. Hau iragan zen bi alditan, lehena 597an, bigarrena kristo aitzineko 587an. Jeremi ez zen erbesteratua izan, Jerusalemen gelditu zen.

Hemen dugun idatzia Jeremik Jerusalemen idatzi zuen bere herritarreri esperantza emaiteko xedearekin. “ *Beha: iparraldetik erakarriko ditut eta lurraren azken mugetarik bilduko...Nigarretan joanak ziren, kontsolaturik ekarriko ditut...*”

Azken ohar bat. Jainkoa aita dela errana da. „*Aita bainaiz Izraelentzat, Efraim baitut premu.*” Jainkoa aita bat bezala ikustea, memento haietan, aski gauza berria zen. Ozek du lehen aldikotz, Kristo aitzineko 8. mendean, Jainkoa « aita » bat bezala erakutsi : « *Izrael haurra zelarik maitatu dut eta Egiptotik ateratzeko dei egin diot nere semeari...Haurtxoa musuraino altxatzen duenaren idurikoa nintzen heientzat...*» (Os 11,1-4) Izraelen fedeak, memento kezagarri batean jauzi handi bat egingen du, Jainkoa aita bezala ikusiz.

Salmoa 125

Leloa: Handizki gaitu Jaunak lagundu:
Hara non garen bozkariatzen.

**Preso zirenak baititu Jaunak erakarri,
Gu ginen kasik ametsetan.
Ahoa zabal ginauden oro dena irri,
Kantu soinuak ezpainetan.**

**Bertze jendeek egiten zuten so elgarri:
“ Ari da Jauna heien baitan.”
Handizki dauku Jaunak eskua eman guri:
Hara non garen lorietan.**

**Eman zuk, Jauna, gure jendeen indar berri:
Urek bezala mortuetan.
Nigar-hipetan joaten direnak ereilari,
Uzta bilari lorietan.**

**Haratekoan harat doatzi pleinuz ari,
Hazi-bihiak eskuetan.
Hunatekoan hunat datortzi kantuz ari,
Espal ederrak eskuetan.**

« *Preso zirenak baititu Jaunak erakarri...* » Salmo hau idaztean erbesteratuak beren herrirat itzuliak dira beraz. Babilonia, bere aldian, erori da Kristo aitzineko 538an. Cyrus, nagusi berriak, beren etxerat igorri ditu arrotz guziak, Izraeldarrak bertzeak bezala.

„*Gu ginen kasik amentsetan*“ Ezin sinetsia zen berriz itzultze hori, egiazko berpizte bat. Alabainan Babilonian egonez beti, beren ohidurak eta beren sinesteak galduko zituzten, paganotuko ziren eta beren izaitea galduko. Berpizte horren azaltzeko, konprendiarazteko salmistak bi irudi aipatzen ditu: urarena eta uztarena.

Urarena. “*Eman zuk, jauna, gure jendeen indar berri: urek bezala mortuetan.*” Jerusalemaren hego aldean den Negev deitu lurra desertu bat da, bainan primaderako euri uharren ondotik mendiak lorez estaltzen dira.

Bigarren irudia: uztarena. Bihia lurpean usteltzen balin bada, gero uzta heldu da. “*Haratekoan harat doazi pleinuz ari, hazi-bihiak eskuetan. Hunatekoan hunat datorzi kantuz ari, espal ederrak eskuetan.*”

Bada hor esperantzazko mezu eder bat. Kristoren sortzeak gauzatuko duena.

Bigarren irakurgaia

(Jesus apez nagusi Melkizedeken araberan)

Hebrearri epixtolatik

5, 1-6

- 1 Apez nagusia gizonen artetik hartua,
gizakien alde ezarria da Jainkoari dagozkionetan,
bekatuengatik emaitzak eta opariak eskaintzeko.**
- 2 Ezjakinean eta bide makurretik dabilzanak urrikari izan ditzazke,
bera ere ahuleziaz inguratua baita;**
- 3 eta, ahulezia horrengatik,
bere bekatuengatik ere opariak eskaini behar ditu,
herriaren bekatuengatik bezala.**
- 4 Nehork ez dezake apez nagusigoaren ohorea beretzat har,**

- Jainkoak deitua ez bada, Aaron bezala.**
- 5 Horrela, Kristok ere ez dio berak eman bere buruari
apez nagusigoaren ospea,
Jainkoak baizik , hunela hitz egin baitzion:
“ Nere Seme zira zu, nik zaitut gaur sortu.”**
- 6 Beste salmo batean ere hau erraiten dio:
“ Apez zira zu betiko, Melkizedeken iduriko.”**

Paulok Testamendu Zaharreko apez nagusiak eta Testamendu Berriko Kristo konparatzen ditu. Apez nagusiaren ohorea eta Kristoren ospea, biak Jainkoak emanak dira.

Kristo baitan denak berriak dira eta bizkitartean bi testamenduak, ari berekoak dira. Berria Zaharraren ume da. “ *Ez uste ukan Moisen legearen edo profeten erranen ezeztatzera etorria naizela; ez naiz ezeztatzera etorria heien beterat eremaitera bai*” (Mt.5, 17) T.Z.eko apez nagusia bertze gizonen idurikoa da. Jainkoa eta gizonen artean zubi da eta Jainkoak hautatua da.

Apez Nagusia gizon kontsekratua da, erran nahi baita gizon “berex“ ezarria. Izraelgo hamabi leinuatarik bat berex ezarria zen. Hura zen Levi-ren leinua. Ondokoak lebitak deitzen ziren. Hauk beren denbora osoa tenploaren zerbitzuko emaiten zuten : ez zuten lurrik. Tenploko eskaintzetarik ziren bizi. Apez guziek ez zuten grado bera. Hauien egitekoetan barne zen kabalen sakrifikatzea, bai eta ere beilen antolatzea, kantu lanak segurtatzea eta abar...

Mois eta bere anaia Aaron Levitarretarik ziren eta Aaronen ondokoek zuten bakarrik apeznagusi izaiteko ahala. Baina Jesus ez zen levitarretarik. Bere aitaren bidez Daviden ondokoa zen.

Baina Jainkoak nahi duena deitzen ahal du apeznagusi izaitera. Eta bere Seme Kristo mundurat igorri du bere eta gizonen artean zubi izan zadien. “*Apez zira zu betiko, Melkizedeken iduriko.*”

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

**Goretsia izan bedi Jauna gure Jainkoa:
Ilunbetan daudenak goratik argitu ditu.**

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 10, 46-52

- 46 Jesus bere dizipuluekin eta jendalde handiarekin
Jerikotik ateratzean,
Timeren semea, Bartime eskale itsua bide bazterrean jarririk zagon.**
- 47 Nazareteko Jesus zela jakitean, oihuka hasi zen:
“ Jesus, Dabiden Semea, urrikal zakizkit! ”**
- 48 Ainitzek larderiartzen zuten ixilarazteko,
bainan harek are gehiago oihu egiten zuen:
“ Dabiden Semea, urrikal zakizkit! ”**
- 49 Gelditu eta Jesusek erran zuen : “ Dei egiozue.”
Itsuari dei egin eta erran zioten:
“ Gora bihotza! Jeiki, deitzen zaitu.”**
- 50 Bere soingainekoa aurtikiz, jauzian xutitu
eta Jesusenganat joan zen.**
- 51 Jesusek erran zion:
“ Zer nahi duzu egin diezadazun ?”
Itsua ihardetsi:
“ Rabbuni, ikus dezadan.”**

**52 Eta Jesusek erran zion:
 “ Zoazi, zure fedea salbatu zaitu.”
 Ordu berean ikusten hasi zen,
 eta Jesusi jarraitzen zitzaion bidean.**

Berak eta bere dizipuluek Jeriko uzten dute Jerusalemeri buruz lotzeko. Eta horra nun Bartime eskalea bide bazterretik oihuka hasten zaioten : “Jesus, Dabiden Semea, urrikal zakizkit!” Eta nehork ez du ixilaraziko. Jesusek orduan : „ *Dei egiozue!...zer nahi duzu ?*“ itsuak berriz : “ *Rabbuni, ikus dezadan.*“ Eta Jesusek : “ *Zoazi, zure fedea salbatu zaitu*“

„*Zure fedea salbatu zaitu...*“ Epileptikoaren sendatzea ekarria den kapituluan ere irakur daitaie Jesusen erran hau : “ *Dena ahal du sinesten duenak.*“ (Mk 9, 23) Eta bertze pasaia batean Jesusek dio fedea duenak mendiak berak higiaraz dezazkeela. Bainan fedea nork emaiten du ? Jainkoak : “ *Nehor ez da nere ganat heldu, nere Aitak ez badu erakartzen .*“ Eginbide dugu beraz otoitz egitea Jainkaori fedea galdatuz.

Mirakulu horren ondotik laster Jesus Jerusalemen sartzan da ospe handitan. Jendeak kantatzen duela : „ Ongi etorri Jaunaren izenean heldu denari...“ Mesias bezala ikusia da hor Jesus. Bartimek ere „*Dabiden seme*“ deitzen duelarik Mesias dela aitortzen dio.

Jesusek ez dio sendatu duenari galdatzen, bertze kasu batzuetan egin duen bezala, bere sendatze hori ez dezan konda, beretzat atxik dezan. Orai Jesusek onartzen du jendeak Mesias bezala ikus dezan. Orai bere lurreko bizia laster bururatuko zaio eta, ez da irriskurik, jendeak Mesias ospetsu bat bezala har dezan.

Mirakulu horrekin Jesusek erakusten du bera dela Profetek iragarri Mesias: „ *Orduan itsuek berriz ikusiko dute eta elkorrek entzunen...*“ (Is 35, 5)